



Maddalen Ruesgas ·
Inés Gutiérrez · Naia Arnedo
Aixerrota BHI 15-16

Aurkibidea

Jon Arretxe	3
Sarrera	4
<i>7 kolore</i>	
• Kokapena	4
• Gaia	5
• Argumentua	5
• Istorioa	5
• Pertsonaiak	6
• Egituraketa	6
• Baliabideak	7
Iritzia	8
Bibliografia-webgrafia	10

Jon Arretxe

Jon Arretxe Perez Basaurin jaio zen, 1963ko ekainaren 4an. Jatorriz bizkaitarra den arren, Gasteizen bizi izan da hamabost urtetan, eta 2004tik Nafarroan bizi da, Arbizun.

Deustuko Unibertsitatean Euskal Filologia ikasketak egin zituen. Bertan Doktore gradua lortu zuen *Basauriko euskara* tesiari esker, non Basauriko azken belaunaldi euskaldun zaharren hizkera idatzia batu zuen. Ondoren, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzian lizentziatu zen.



Musika ikasketak ere egin ditu. Piano ikasketak Bilboko Kontserbatorioan egin zituen, eta Kantukoak Gasteizko eta Bilboko kontserbatorioetan.

Euskara irakasle izan zen hamar urtez Deustuko Unibertsitateko Euskal Irakaslegoan eta Heziketa Fisikoa irakatsi zuen hiru urtez EHU-n, Gasteizko Irakasle-eskolan. Lan hori utzi eta azken urteotan literaturatik bizitzera erabaki du.

1991n argitaratu zuen lehen liburua, *Hakuna matata*. Eleberri beltza, bidaia-literatura eta umorea jorratu izan ditu batez ere, hogeitun liburutik gora argitaratu ditu eta batzuk beste hizkuntza batzuetara itzuli dituzte (gehienbat gaztelaniara).

Bere bidaia nahiz liburuei buruzko hitzaldiak ematen ditu. Garai batean oso ezaguna egin zen bere bidaiei buruzko hitzaldiak eta diaporamak egiten zituelako. Opera kantatzen du. Bilboko eta Iruñeko opera koroetan kantatzen du, eta bakarlari gisa ere aritzen da.

Sarrera

7 kolore izeneko obra honek, kolorerik kolore eta emoziotik emoziora garamatza. Obra hau, idazleak egindako bidaietan oinarrituta dago eta zazpi atalek osatzen dute, bakoitza kolore batean oinarrituta: beltza, grisa, horia, gorria, berdea, urdina eta zuria. Herrialdez herrialde, kultura desberdinak ezagutzeaz gain, narrazio desberdinetako pertsonaien bizipenak irakur ditzakegu. Arretxek herrialde erabat desberdinak bisitatu ditu: Amazonia, Aljeria, Mali, India, Pakistan, Indonesia, Txina eta Siberia. Batzuetan idazlea bera da bizitzakoak kontatzen dituenak. Beste batzuetan berriz, bidaietan ezagututako biztanleak dira haien bizipenak edo herrialdeetako istorioak kontatzen dizkigutenak.

Kokapena

Esan bezala, liburua zazpi atalez edo ostadarraren zazpi kolorez osaturik dago. Beltzak eta zuriak, hurrenez hurren, ibilbidearen hasiera eta amaiera markatzen dituzte, eta agerian uzten dute zein desberdina den heriotzaren ikuspegia kultura desberdinetan: bidearen amaiera iluna Mendebaldean, edo beste argi bateranzko abiapuntua Ekialdean.

Egoera gogoangarri asko daude narrazioetan, batzuk tristeak, beste batzuk pozgarriak, edo beldurgarriak, edo esperantzatsuak. Narrazioetan pertsonak dira nagusi, herrialde ezberdinetako biztanleak, zerbait kontatu edo erakutsi beharra dutenak, edo euren begirada hutsarekin unibertso oso bat adierazten dutenak.

Ziurrenik, 7 kolore (Elkar, 2000). Jon Arretxeren bidaien literatura genero liburuen artean ospe eta hedapen handiena izan duen kontakizun liburua da RBA-Integralek 2004 urtean 7 Colores gaztelerera itzuli zuen. Gainera 2010ean Erein argitaletxeak liburuaren bertsio berezia argitaratu zuen. Honek, hainbat herrialdeetako bizipenak narrazio laburretan azaltzeaz gain, bestelako osagarriak dakartza. Hitza, musika eta irudia uztartzen ditu. Atal bakoitzari Critsina Fernandez ilustratzaileak koloreak eta marrazkiak erantsi dizkio eta Francisco Ibañez konpositoreak zazpi kanta sortu zituen pianorako zein ahotserako. Interpretateak honakoak dira: Iñaki Belasko pianista Olatz Saitua sopranoa, Enrique Campos tenorea eta Jon Arretxe baxua. Horrela, CD bat sartu dute obran.

Beraz, 7 kolore liburua obra hirukoitza da, idazle, ilustratzaile eta musikari baten elkarlanari esker sortutakoa.

Gaia

Bidaietako bizipenen bidez, munduko herrialde ezberdinetan bizitzak duen balioaren irakaspena, koloreen laguntzarekin.

Argumentua

Munduko herrialde desberdinetatik bidaiatuta, koloreen laguntzaz eta transmititzen dituzten sentazioak aintzat hartuta, bertakoen kulturak eta bizitzak ezagutu ditzakegu. Narrazio laburrak direnez gero, hasierak eta amaierak duten lotura zeharkakoa da. Beltza, grisa, horia, gorria, berdea, urdina eta zuria koloreak ageri dira, herrialde ezberdinen sinbolo modura: beltza eta zuria heriotzarekin erlazionatuta; horia, basamortuarekin; berdea eta urdina naturaren koloreak irudikatzen.

Nolanahi ere, pertsonak dira garrantzitsuena istorio hauetan, hamaika mundutako biztanleak; denek dute zerbait munduari esateko edo erakusteko.

Istorioak

Jon Arretzek Sahara zeharkatu du, Marokotik, Aljeriatik eta Malitik, Niger ibaira heldu arte. Amazonian ibilitakoa da; Karakorumekeo ibilbidea egin du (India, Pakistan eta Txina zeharkatuz) eta Indonesia eta Nepal bisitatu ditu. Egileak toki bakoitzean bizitzak duen balioari buruz hausnartu du. Kontzeptu bera errepikatzen du bisitatutako herrialde desberdinak alderatuta. Betiere, bertakoen kulturak barneratuz, baina aparte mantentzen saiatuz. Horrela, Mendebaldeko pertsonak heriotzari buruz duten pertzepzio beltzetik haratago begiratzera behartzen ditu.

Obraren atal bakoitzak kolore bat du izenburu gisa, zazpi dira guztira, ostadarraren koloreak beste: beltza, grisa, horia, gorria, berdea, urdina eta zuria. Kolore bakoitzak esanahi bat du, munduko herrialde edo zonalde batean bizi izandakoa irudikatuz. Beltzetik zurirako bidaiak da, hau da, negatibotik positiborako.

Lehenengo atalak, *Beltza* izenekoak, heriotzari buruz hitz egiten du. Azkenengo atalak, *Zuriak*, egiten duen bezala. Baina lehenengoak mendebaldeko ikuspegi adierazten du, heriotzari buruzko dugun pertzepzio iluna islatuz. Azkenak, Ekialdekoa, ikuspegi baikorrago bat. Aipatu beharra dago lehenengo atalean autorearen aitaren heriotzari buruzko zenbait erreferente daudela, hitzaldiren batean azaldu duen bezala.

Bigarren atalak, *grisak*, nahiaren eta ezinaren etsipena du narrazioen arteko hari lotzaile gisa. Hirugarren atalak, *horiak*, eromena eta errealitateaz bestalde dena erakusten digu. Laugarrenak, *gorriak*, gizakiak zenbait egoeratan pairatzen duen beldurra eta biolentzia erakusten dizkigu. Bosgarrenak, *berdeak*, itxaropena: etorkizuneko asmoak, ametsak egia bihurtzea... Azkenik, *urdinak* harmonia eta bakeari buruz hitz egiten du.

Pertsonaiak

Narrazioetan pertsonak nagusi diren arren, lehenengo pertsonan kontaktzen duen narratzaileaz gain, ez dago obran zehar nabarmentzen den pertsonaiarik. Arretzek herrialde txiroetan barrena bidaiatu du.

Pertsonaia gehienak ezezagunak dira, herrialde ezberdinetako biztanleak, pertsona xumeak. Zerbait kontatu edo erakutsi beharra dutenak; edo begirada huts batekin unibertso oso bat adierazten dutenak, trukean ezer espero gabe, emateko asko dutenak.

Adibide bat jartzearen, Mendebaldean, ez daukagu ohiturarik gure etxeko atepak ezagutzen ez dugun pertsoneri irekitzeko. Baina, kontakizunetan, pertsonaiek bidaiariari atepak irekitzeaz gain, eskaini dezaketena ematen diote.

Egituraketa

Liburua zazpi ataletan banatuta dago, bakoitzak kolore baten izena du: beltza, grisa, horia, gorria, berdea, urdina eta zuria. Kolore bakoitzak esanahi bat du, munduko herrialde edo zonalde bat irudikatuz. Beltzetik zurirako, hau da, negatibotik positiborako bidaia da. Horrez gain, atal bakoitzaren hasieran kolore horri lotutako abestiaren partitura ikus dezakegu. Atalek euren baitan narrazio laburrak dituzte.

Idazleak kontaketa lineala erabiltzen du istorioa kontatzeko, hau da, ekintzak gertatu ziren ordenan agertzen dira, ez ditu denboraz aldatzen. Liburuaren erritmoa oso zaindua bada ere, intentsitatea ez da berdina kontakizun guztietan. Hasierako atalek erakartzeko indar handia duten bitartean, azkenengoenak bizitza ulertzen eta bizitzarekin gozaten erakusten dute.

Baliabideak

Idazlearen baliabideei dagokienez, honako hauek aipa daitezke: espresaerak, kontatzeko estiloa, narratzaile mota eta tropeak edo figurak.

Espresaerei dagokienez, narrazio laburrak erabiltzen ditu bidaietan bizitzako esperientziak kontatzeko. Deskribapen asko erabiltzen ditu, pertsonaietan eta batere ere, paisaietan sakontzen du. Irakurleari egoeraren irudia egin dezan lagunduz, baina betiere guztiz zehaztu gabe, deskribapen xumeen bidez irakurleak imajina dezan osotasuna. Horrela, irakurleari jolasteko aukera emanaz. Adibiderako:

Ume zoragarria zen, izan ere; artean ez zekien hitz egiten, ulertu ezinezko hotsak baino ez zituen ahoskatzen, eta pitilina eta mukia zeriola ibiltzen zen lurretik katuka. Jaterakoan arroza ontzitik atzamarrez hartu eta gehiena jausi egiten zitzaion ahorako bidean. Horren ondorioz, ezpainak eta eskuak ia beti zikin izaten zituen eta aitaren aurpegian garbitu ohi zituen musuka edo laztanka.

Elkarrizketa ugari ere erabiltzen ditu, pertsonaien arteko elkarrekintzak islatuz:

—Zergatik ez du inork hemen bizi nahi? —ausartu nintzen itauntzen, azkenik.

—Rubiah-en izpirituaren beldur direlako.

...

—Eta zuk ez duzu beldurrik sentitzen? —galdetu nion narrazioa bukatu zuenean.

—Niri bizidunek sortu dizkidate arazoak orain arte-erantzun zuen.

Gainera, narrazio bakoitzaren amaieran, hausnarketa bat egiten du beti, irakaspen baten gisan. Aipatutako guztia koloreekin lotuta betiere. Adibiderako, lehenengo atalaren amaiera:

Berari ez dio ardura jadanik zelako eguraldia egiten duen kanpoan. Berdin dio oskarbi ala euritsu dagoen; berdin dio zelako kolorea duen zeruak, argia nahiz iluna, urdina nahiz grisa, berak honezkero kolore bakarra baitauka gogoan, kolorerik ilunena.

Kontatzeko estiloari dagokionez, nahiko hizkuntza laua erabiltzen du, hiztegi aldetik ez da oso zaila. Adjektiboen ugaritasuna nabarmena da, deskribapenak egiteko nahitaezkoak baitira. Adibidez:

Mamo-ren aurpegiera nabarmen aldatzen zen eguna aurrera joan ahala. Azal beltzeko gizon gazte haren begi handiek dir-dir egiten zuten, pozaren pozez, etxeko ume txikia, Ablo, goizero besoetan eta zerura begiratzen jartzen zuenean.

Narratzaileak lehen pertsonan kontatzen du. Idazlea bera baita narratzailea, bere bidaien eleberrri bat da obra hau, bizitako abentura eta bitxikeriaz beterikoa. Dena dago errealitatean oinarriturik. Begirale jarrera hartzen du gainera, beste mundu eta egoeretan kokatzen diren gertaerak jadanik aztertuta eta kokatuta ematen dizkigulako. Adibidez:

Nire berba hutsalak entzun ere ez zituela egiten emango nuen, eta, begirada lausoa te-ontzia berotzen zuten txingar txikietatik aldentzeke, behin eta berriro esaten zuen: Il faut tuer le temps.”

Azkenik, figurei dagokienez, denetarik aurki dezakegu; metaforak: *kandelak eta kriseiluak pizten ari ziren pixkanaka* (jendeak kandelak pizten zituen, ez ziren berez pizten); antitesia: *...berak erakutsi zizkizun lehena eta geroa, ongia eta gaizkia, hilen eta bizien mundua...*; konparazioak: *ni beste uharte handixeago batean nengoen*; kontrasteak: *ia beldurrez mintzatzen ziren leku hartaz..... baina niri zoragarria begitantzen zitzaidan...*

Iritzia

7 kolore ez da edozein liburutegitan topatu daitezkeen liburuak bezalakoa, xarma berezia duen liburua da. Baina ez argitalpen bereziak istorioaz gain, musika eta ilustrazioak dakartzalako. Bidaia “eleberria” denez gero, horren da pertsonala ze kontatzen dituen istorioen bitartez balio asko ikas daitezke. Urrun ditugun kulturak gerturatzen dizkigu. Nolabait, aurreiritziak alde batera utzi eta herrialde horietako bizitza benetan nolakoa den ezagutarazten digu.

Arretxek literaturak bidaiatzeko ere balio dezakeela aldarrikatu du behin baino gehiagotan, eta obra hau dugu horren erakusle argienetakoa. Berak bidaiatzea zein idaztea maite ditu, eta benetan trebea da biak fusionatzen. *7 kolore* liburua zabaldu eta gurea ez den ohe batean esnatu gaitezke. Irakurleari bidaiatzen erakusten baitio autoreak, urrun dauden herrialdeak hurbilduz. Mugitu eta ordaindu gabe irakurlea narratzailearen bidaia-kidea bilakatzen da, horrela elkarrekin munduko bazterrik ederrenak ezagutuz eta horiekin gozatuz.

Autoreak berak obran kontatzen dituen egoerak bizi zituenean sentitutako zein pentsatutako ideia kontrajarrienak batuz: beldurra, poza zein zorigaitza.

Efektu honen bidez, idazleak munduko errealitate ezberdinak ere erakusten dizkigu. Adibiderako, heriotzari buruzko ikuspegi ezberdinak. Aipatutako hasierako eta amaierako atalek islatzen dute hau: beltza zein zuria izan daiteke heriotzari buruzko gure ikuspegia, askotan gauden herrialdearen arabera da. Baina koloreei ematen zaien balioa kulturaren arabera desberdina bada ere, balio horiek, mundu osoan zehar berberak dira. Hau da, heriotzak esanahi bera du herrialde guztietan, kontzeptu bera da.

Horrez gain, azaleko harremanak saihestuz, harreman barnerakoiagoi eta gizakiaren etengabeko galdera eta kezka nagusiei buruz hitz egiten du egileak, gaur egun normalean gizartean izaten diren harremani kontrajarriz eta benetako harremanen balioa indartuz.

Hamaika sentsazio ezberdin transmititzeaz gain, irakurritako narrazioek hausnarketarako bidea ere ematen digute. Zeinen gauza gutxirekin bizi daitezkeen pertsonak eta, gainera, zoriotsua izan. Edota, guretzat arruntak diren gauzak, beste batzuentzat ametsak direla ohartu. Nabarmentzekoa da istorioan emakumeek duten garrantzia. Narrazio askotan, emakumeak dira protagonista. Harrigarria da beste kultura batzuetan emakumeak zelako baldintzetan bizi behar duen: senarra aukeratzen diete, askotan bortxatuak dira, gaixo daudelako bazterten dituzte... Egoera hauek horren gertuko sentitzeak, iraultza feminista burutzeko indarrak areagotzen ditu.

Baliabideen atalean aipatu bezala, hasierako atalek erakartzeko indar handia dute, horren adibide hurrengo hau: *Beltza-Denboraren balioa (35)*

Esaldi etsigarri haien arrazoibidea guztiz zentzuzkoa iruditu arren, saiatzen nintzen Mamou konbentzitzen denbora hiltzea, denbora ematea, huts handia zela, denbora bizi eta dastatu egin behar zela, egun bakoitza, ordu bakoitza, minutu bakoitza, denbora hiltzea gure burua hiltzea bezalakoa zela.

Baina Mamouk ez zidan jaramonik egiten. Nire berba hutsalak entzun ere ez zituela egiten emango nuen, eta, begirada lausoa te-ontzia berotzen zuten txingar txikietatik aldentzeke, behin eta berriro esaten zuen: “Ill faut tuer ke temps”.

Amaitzeko, itzela da narrazio ezberdinen bidez koloreei ematen dien zentzua. Koloreekin bidaiatu dugu, eurekin sentitu ditugu sentsazio ezberdinak eta baita kultura ezberdinak ezagutu.

Bibliografia

- *7 Kolore*, Jon Arretxe. Erein.

Webgrafia

- <http://www.jonarretxe.net/>
- <http://www.idazleak.eus/>
- <http://www.erein.eus/liburua/7-kolore>
- <http://armiarma.eus/>
- <http://www.ehu.eus/ehg/literatura/idazleak/?p=145>
- <http://www.atalak.eus/ikasgela/nola-egin/il-gida/index.html>